

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

MOREDA ARABAKO UDALA

Jendaurrean jartzea zaborren tasaren 2019ko zerga errolda eta kobratzeko moduan jartzea

Behin-behineko onespena eman zaiolarik Moreda Arabako zaborren tasaren 2019ko erroldari, espedientea jendaurrean jartzen da udal idazkaritzan, hamabost egun baliodunez, iragarki hau iragarki taulan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, aukera egon dadin aztertzeko eta egoki jotzen diren erreklamazioak aurkezteko.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, espedientea behin betiko onetsizat joko da.

Borondatezko aldiko dirubilketa epea ekainaren 15etik abuztuaren 15era izango da, egun biak barne.

Ordainketa inolako kreditu erakundetan helbideratu ez duten zergadunek udalak Kutxa-banken daukan kontuan ordaindu beharko dute.

Banketxeetan helbideratutako ordainagiriak: Udalak izapidetuko du ordainketa. Zergadunei jakinarazten zaie ordainketen banku helbideratzeetan altarik edo aldaketarik egon bada, Moreda Arabako Udalean izapidetuko direla.

Borondatezko aldia amaituta, ordaindu gabeko kuotak premiamenduko betearazte bidean sartuko dira, eta legez ezarritako errekarguak, eta, hala badagokio, berandutze korrituak eta kostuak sortuko dituzte.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Moreda Araba, 2019ko maiatzaren 13a

Alkatea

MIRIAM GARRIDO REMÍREZ DE GANUZA